



UNIBERTSITATEEN 9 TALDEAREN 2015eko AGIRI BATERATUA INDARKERIA MATXISTAREN KONTRA (Kantabriakoa, Gaztela-Mantxakoa, Extremadurakoa, Balear Uharteetakoa, Errioxakoa, Oviedokoa, Euskal Autonomia Erkidegokoa, Nafarroako Publikoa eta Zaragozako)

Kantabriako Unibertsitatea, Gaztela-Mantxakoa, Extremadurakoa, Balear Uharteetakoa, Errioxakoa, Oviedokoa, Euskal Autonomia Erkidegokoa, Nafarroako Unibertsitate Publikoa eta Zaragozako Unibertsitatea osatzen ditugun emakume eta gizon guztiok publikoki adierazi nahi dugu emakumeen aurkako indarkeriaren gaitzespenik irmoena, eta bereziki gure gizartean gertatzen diren emakumeen erahilketen aurkakoa.

Zenbait gizonek emakumeak menderatzea eta azpiratzea, hiritar guztiak ukitzen gaituen arazo larria da, eta Unibertsitateak, ezagutzaiturria eta gizarte justuago bat lortzeko tresna denez gero, ozen hitz egin nahi du emakumeak erahiltzen eta beldurrez bizi arazten dituztenen aurka.

Kantabriako Unibertsitatean, Gaztela-Mantxakoan, Extremadurakoan, Balear Uharteetakoan, Errioxakoan, Oviedokoa, Euskal Autonomia Erkidegokoa, Nafarroako Unibertsitate Publikoan eta Zaragozako unibertsitatean gogor egiten dugu lan, eta irakaskuntza, ikerketa eta gizarte politikaren mailan dauzkagun baliabide guztiak erabiltzen ditugu berdintasunean hezteko, berdintasunik gabe ezin delako askatasunik izan.

